



LA LINEA DE LA LIBERTAD

Florentino Goikoetxea mugalari hernaniarrak 227 pilotu pasa zituen Bidasoaren alde batetik bestera. Andrée de Jongh belgikarrekin (goian) hasi zen Comète sarea, Arnold Deppé ingeniaria ezagutu eta erresistentzia zirkuluetan sartu zenean.

Comète

Sare ikusezina mugaren bi aldetan

II. Mundu Gerran, naziek okupaturiko Europan, sare ikusezin batek Belgika eta Gibraltar lotu zituen. Ehunka lagunek harilkatutako sare luze bat zen, eta haren erdian Euskal Herria zegoen, lokarri sendo eta estuena. Comète sarearen helburua zen zona okupatuan eroritako pilotuak eta iheslariak zona aliatura eramatea. Horretarako euskal muga erabili zuten paso gisara eta euskaldunek zuzenean parte hartu zuten sare hartan, mugalari lanak egiten edo iheslariari ostatu ematen. Juan Carlos Jimenez de Aberasturi historialariak sakon ikertu du Comète sarea eta irailean liburu bat ateratzekotan da Hernaniko (Gipuzkoa) mugalariari buruzko testigantza gehiagorekin. Hain zuzen, Hernanin jaso dute duela gutxi mugalarien omenezko monolitoa, Gerraren amaieraren 60. urtemugan.

• Mugalariak

1939KO IRAILAREN 1EAN Hitlerrek Polonia eraso zuen eta horrekin batera hasi zen II. Mundu Gerra. Hilabete gutxiren buruan Alemaniak altzairuzko makina boteretsu bat zela erakutsi zuen eta gai zela Europa osoa menpean hartzeko. Lehenengo Polonia, gero Danimarka, Holanda, Belgika eta azkenik Frantzia. 1940ko ekainaren 27an tropa naziak Baionara iritsi ziren eta hortik gutxira Iparraldea, Frantzia guztia bezalaxe, bi guntan bananduta geratu zen: ekialdekoa, gune librea (alemaniarren kolaboratzaile) eta mendebaldekoa, gune okupatua (alemaniarren esku). Egoera larria zen, Europa osoan "erresistentzia" antolatu zuten nazien kontra eta horrekin batera ihesi zihoazen pertsonak laguntzeko erakunde klandestinoak.

Gauzak horrela, Euskal Herriko muga ihesbide paregabea bilakatu zen ezkutuan zeudenen zat. Espainia frankistaren "neutraltasuna" medio, aliatuek herrialde hartan aukera gehiago zituzten ihesa egituratzeko. Comète dugu iheslariak eta hegazkin-pilotu aliatuak Bidasoaren alde batetik bestera pasatzen aritu zen sare ezaguna, baina ez bakarria, gehiago ere izan ziren.

Dédée, belgikarra fundatzaile

Comète sarearen lehen haria Belgikan ehundu zuen Andrée de Jongh izeneko armiarma

txiki batek. Frederic de Jongh irakaslearen alaba zen Andrée eta erizain ikasketak egiten ari zen Gerra lehertzean. Comète sarearen historia belgikar neska gazte honek Gurutze Gorrian izena eman zuenean hasten da.

Han ezagutu zuen Arnold Deppé ingeniaria eta han sartu zen buru-belarri erresistentzia zirkuluetan. Naziengandik ihesi zebiltzanei ezkutalekuak aurkituko zizkieten lehenik, baina jakin bazekiten biek, garrantzitsuenak ihesbideak aurkitzea zela. Belgikar kostalde soldaduz josia zegoen, hortik ezin zen. Beraz, azkeneko aukera Frantzia osoa gurutzatu eta Euskal Herriko muga pasatzea zen, Gibraltar edo Lisboaraino. Deppék kontaktu asko zituen Ipar Euskal Herrian, Doninabe Lohitzunen zineko soinu teknikari aritu baitzen urte luzez. Horien bitartez Andrée (*Dédée* ezizena erabiliko du hortik aurrera) Alejandro Elizalde mugalariarekin eta De Greff izeneko belgikar familiarekin jarri zen harremanetan. Familia hori Angelura iritsi zen nazien bultzadatik ihesi eta Voisin izeneko etxean bizi zen. 1941eko uztailean *Dédée* gaztea Baionara iritsi zen, hamaika iheslarirekin eta lehenengo aldiz muga pasa zuen Tomas Anabitarte mugalari hernaniarrak gidatuta.

Mugaz bestaldera, ordea, ez zegoen ia ezer antolatuta eta sarearen zati hura lotzeko

Florentino Goikoetxea mugalaria

Abiadoreak mugaren alde batetik bestera pasatzeko hainbat mugalarik lagundu zuten. Baina horietan ezagunena eta agian lan gehien egin zuena Florentino Goikoetxea hernaniarra dugu, Altzuetako baserriko semea. Guztira, 227 pilotu pasa zituen Bidasoan alde batetik bestera eta horietaz gain agente belgikar eta frantziar ugari ere bai. Florentino arrantzan eta kontrabandoan ibilia zen, baina 1936an Gerra hasi zenean alde egin zuen Ziburura, Guardia Zibila etxera bila joan zitzaionean. Han ezagutu zituen erresistentziako eta Comète sareko kideak, Kattalin Agirre kasu. Ezagutu zuten guztiek nabarmendu dute hernaniarraren leialtasuna eta zintotasuna. Andrée de Jonghekin bikote arraroa egiten zuen: bata euskaldun petoa zen, baserriko gizona, indartsua baina letratu gabea; bestea belgikarra, goi-mailako ikasketak egindako neska formala eta bizia. Gauaren erdian mugalariak basoko bazter batetik koñak botila ateratzen zuenean, orduan izaten ziren komeriak bien artean.

Salbatzailea salbatu zutenekoa Arrisku momentuetan odol hotzeko gizona zen Altzuetakoa. 1944an iheslarien pasoa erabat itxita zegoen, soldadu alemanak non nahi

zebiltzalako. Florentinok korreo lanak egiten jarraitu zuen ordea. Mendian zegoela alemanek deskubritu egin zuten behin eta lau tiro jaso zituen gorputzean, hala ere gai izan zen soinean zituen paperak nonbait gordetzeko. Atxilotuta eraman zuten Baionako ospitalera eta Gestapoko agenteak hurrengo egunean joango zirela abisatu zioten. Aukera hori ikusita, Angeluko erresistentziako kideek, De Greff familia buru zutela, erreskate plan bat antolatu zuten, alemanez jantzita sartu ziren ospitalean eta ambulanzia itxurako kamioneta batean Florentino toki segurura eramatea lortu zuten. Salbatzailea salbatu zuten.

Florentino Goikoetxeak hainbat kondekorazio jaso zituen britainiar eta frantziar gobernuen eskutik Gerra amaitu eta gero. 1980an hil zen eta Ziburuko hilerrian lurperatu zuten, emaztearekin batera. Duela gutxi egin zaio azkeneko omenaldia Hernanin, inguruko beste hiru hernaniar mugalariarekin batera: Juan Larburu, Tomas Anabitarte eta Martin Errazkin, azkeneko biak Florentinoren auzokideak (Otsua-enea baserrikoak) eta txikitako lagunak. Hernanira Comète-aren Lagunen Elkarteko kideak joan ziren eta Udalarekin batera monolito bat jaso zitzaien omenduel beren auzoan, Osiñagan.

Florentino Goikoetxeak eta Andrée de Jongh-ek bikote arraroa egiten zuten: bata euskaldun petoa zen, baserriko gizona; bestea belgikarra, goi-mailako ikasketak egindako neska formala

Antonio Arakama donostiarraren laguntza estimatua izan zuen *Dédée*. Bilboko britainiar kontsulatura jo zuten eta han ingelesak aho zabalik utzi zituen: Nola zitekeen horrelako neska gazte eta txiki batek, hortik Belgikaraino halako azpiegitararik sortu izana? Ondo pentsatu ondoren Comète sarea diruz laguntzea erabaki zuten britainiarrek, baldin eta pilotu ingelesak erreskatatzeko balio bazuen. Baina *Dédée* baldintza bat jarri zuen: sarea belgikarra zen eta erabat independentea, ez zituzten besteen aginduak onartuko.

Belgikatik Gibraltarrera, Euskal Herrian barrena

Britainiarren laguntza jasota, sarea osatuta zegoen. Bidearen lehenengo zatia oso arriskutsua zen, Belgikatik Parisera. Muga hartan nazien kontrola oso zorrotza zen eta Frederic de Jongh *Dédée*ren aitak eraman zuen zati horren ardura. Parisen iheslariek tren hartzen zuten eta Baionan edo Donibane Lohitzunen geratzen ziren. Hortik Ziburura, Kattalin Agirreren etxera. Emakume honek Donibane Lohitzuneko Euskalduna hotolean egiten zuen lan eta Comète sareaz

gain, beste hainbat erakundetan zebilen, horregatik kondekoratu zuen Frantziako gobernuak urte batzuk beranduago. Muga pasa aurretik azken etenaldia Bidegain-Berri baserrian egiten zuten, Urruñan. Bertan bizi zen Frantzia Usandizaga, bere bi semeekin eta Juan Manuel Larburu hernaniar erbesterratuarekin –azken honek mugalari jardun zuen, harik eta harrapatu eta kontzentrazio gune batera eraman zuten arte. Bertan hil zen—. Hortik Florentino Goikoetxea mugalari ezagunari jarraituko zioten iheslariek, hau ere hernaniarra. Gau osoa oinez pasatzen zuten, aurretik Florentino eta atzetik *Dédée* zutela. Bidasoa pasa eta Aiako Harria alderik alde gurutzatu ondoren Sarobe baserria iristen ziren eta gero Oiartzungo Altzibar auzora, Arbide-Garaier familiaren etxera. Azken txanpan zeuden.

Donostian Bernardo Arakamaren etxean deskantsatzen zuten pilotuek, erabat lehertuta. Hurrengo egunean britainiar kontsulatuak bidalitako taxi batek lehenengo Madril eta gero Gibraltarrera eramaten zituen eta handik abioiez Londresera itzultzen ziren. Guztira hamar egun eta hamar gau. Bruselatik Londresera 300 Kilometro

II. Mundu Gerra hegazkinen iraultza izan zen, abiazioa erabakigarria bihurtu zen Gerraren norabidea markatzeko eta pilotuak ezinbestekoak. Horregatik zen hain garrantzitsua alemanen bateriek botatako pilotuak salbatzea

kulturagenda

Maiatzaren 9tik 21era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak
Erakustaretoa
Charles Sandison
"The reading room"
Apirilaren 27tik
ekainaren 17ra
Ganbaran
Metrópolis
Alberto
Schommer-en
argazkiak
Apirilaren 26tik
ekainaren 10era

Areto Nagusia. 19:30
Aranzadi Elkarreak
antolatutako
Arkeologiaren
Abentura
VII Arkeologia jardunaldiak
Maiatzaren 8tik 12ra
Baroja eta
Pentsamendua
Pio Barojaren heriotzaren
50. urteurreneko
jardunaldiak
Maiatzaren 17tik 25era



Kristobaldegi, 14 20014 Donostia
www.arteleku.net

Atzera begirakoa
Joaquín Jordá
Antzoki Zaharra. 20:15
Nosferatu zinema zikloa

Maiatzak 10
Maria Aurèlia Capmany parla
d'Un lloc entre els morts (1969)
Espainia. 52'. Euskaraz

Maiatzak 17
Portogallo, paese
tranquillo (1969) Italia. 36'
Lenin vivo (1970) Italia. 31'

Ekoizpena:
Donostia Kultura
Euskadiko Filmategia
MACBA-Bartzelonako Arte
Garaikidearen Museoa
Arteleku-Gipuzkoako Foru Aldundia

Mintegia
Castoriadis
Sorkuntzaren
bidegurutzeak
Maiatzak
4-5-9-10-11-12-16-17-18-19
Koordinazioa: F. Golvano
Gonbidatuak:
Daniel Blanchard,
Amador Fernández Savater,
Ana M^a Fernández,
Celso Sánchez Capdequí





HERNANIKO KRONIKA

Goian, salbaturiko pilotuei Hemanin eginiko agurra. Behean, mugalarien omenez eginiko monolitoa.

inguru izango dira, iheslariek aldiz 3.000 egiten zituzten beren buruak salbatzeko.

Zenbat ate, hainbeste maratila

Sarea osaturik zegoen beraz, baina jakina, sarea hamaika aldiz erori eta hautsi zen 1941ean sortu zenetik 1944. urtea arte. Esaldi zaharrak honela dio orde: "Zenbat ate, hainbeste maratila", ate bakoitzak baduela nondik ireki alegia. Comète sareari atek eta kateak jarri zizkioten behin eta berriz, eta mugalari haiek jakin zuten jarritako ate bakoitzari bere maratila aurkitu eta irekitzen. Bidasoa ibaia leku ezberdinetatik pasa zuten, momentuaren arabera, zela Endarlatzatik, edo Irun-Endara zentral elektrikoa dagoen lekutik. Askotan, ibaiko ura oso goian zegoenean, 16 ordu ibili behar izaten zituzten, itzuli handiak eginez, beti Florentinoren atzetik. Herri bakoitzean bazegoen Comète sarean lagunduko zuen familia edo pertsonarik. Horietako asko euskal errefuxiatuak ziren, frankismotik ihesi Iparraldera iritsitakoak. Euskara zen beren tresna garrantzitsuenetakoa, alemaniarrentzat ezezaguna. Baina horretaz gain harrapatuak ez izateko teknika eta taktika ezberdinak erabili zituzten. Pilotuek ingelesa besterik ez zekiten, eta emakume batez lagunduta egiten zuten treneko bidaia luzea, inguruan errezelorik ez sortzeko.

1943ko martxoan *Dédé* eta Frantxia Usandizaga atxilotu zituzten alemanek Bidegain-berri baserrian, inguruko morroi batek salatuta. Kolpe



HERNANIKO KRONIKA

latza izan zen sarearentzat, haren sortzailea erortzearekin batera sare guztia erori baitzen. Hala ere, ez zuten etsi, François Nothomb belgikarrrak hartu zuen ardura eta ibilbidea zertxobait aldatu zuen; Parisetik Baionara itzuli handiagoa egin beharko zuten hortik aurrera iheslariek.

800 pilotu eta iheslari salbatuta

Guztira 800 ingeles pilotu eta iheslari salbatu zituzten sareari esker, baina horren garrantzia ulertzeko komeni da pare bat gauza azaltzea. II. Mundu Gerra hegazkinen iraultza izan zen, abiazioa erabakigarria bihurtu zen Gerraren norabidea markatzeko eta pilotuak ezinbestekoak ziren. Horregatik zen hain garrantzitsua alemanen bateriek botatuko pilotuak salbatzea; baina aldi berean, *Wehrmacht* indar guztiak erabili zituen erreskateak zapuzteko. 1944an alemanak atzeraka zihozten, Normandiako lehorreratzearekin soldadu alemaniarren presentzia izugarri handitu zen eta etengabe patruilatzen zuten muga inguruan. Baldintza horietan ezinezkoa zen inor inora eramatea eta Comètek bere jarduna eten zuen. Gerra amaitzeaz zegoen.

Aberasturiren datuen arabera 1.700 pertsonak kolaboratu zuten sare erraldoi horretan, horietatik 700 inguru atxilotu zituzten eta 200 fusilatuta edo erbesteratuta hil ziren. ■